


FUNTSEZKO ELKARTEAK

APParen proiektua aurrera eramateko hainbat laguntza edo kolaborazio jaso beharko ditugu; horregatik, gure inguruko elkarteak garrantzitsuak izango dira, atal honetan, beraiek gabe, gure kabuz, ezinezkoa izango baikenuen arrakasta lortzea.

Hasteko, helburu nagusia erosketak merkeagoak ateratzea dela jakinda nahitaezkoa dugu APPan eskainiko ditugun eskaintza eta prezioen informazioa zehatza eta ziurra izatea. Horretarako, supermerkatuak dira fidagarrienak, beraien kolaborazioa izango da garrantzitsuena. Supermerkatuekin kontaktuan jarriko gara, guk haien publizitatea gure aplikazioan argitaratu eta zabalduko dugu eta horren truke haiek guri eskaintza eta salneurri eguneratuen informazioa bidaliko digute. Gure proiektua EAEn gauzatuko denez inguruko supermerkatu ezagunenekin kontaktuan jarriko gara: Eroski, BM Supermerkatuak, Coviran, Todotodo, Spar, Dia, Mercadona, Alcampo, Carrefour eta Lidl.

Bestalde, gure aplikazioa APP Store-n eta Play Store-n egongo da eskuragarri, era honetara gailu elektroniko guztietan eskura egongo da. Horregatik, bi elkarte hauen onspena beharko dugu derrigorrez.



Era berean, ahalik eta bezero kopuru handienarengana iritsi ahal izateko, gure proiektuan oinarritutako publizitatea egingo dugu. Lehen aipatu bezala: Twitter, Instagram, TikTok eta Facebook sare sozialetan enpresa-kontua sortuko dugu, eta bideoak igoko ditugu. Horrez gain, elikadura edo "lifestyle" arloko influencerrekin elkartuko ginatekete. Haiek, aplikazioaren ikuspena handitzen lagun diezagukete, APPa gomendatuz. Horrez gain, eskualdeko aldizkariekin ere hitz egingo dugu: Otamotz eta Hitza esaterako, bezero tradizionalenenganaino ere iristeko. Euskal Herriko irratietan ere parte hartzen saiatuko gara, euskaldunen artean zabaltzeko.



APPa sortzeaz eta hau eguneratuta mantentzeaz informatikari bat arduratuko da. Lehenago talde guztiaren artean finkatuko dugu honen diseinua, erabili nahi dugun koloreen kromatika, eta izango duen itxuraz giatuz. Hau da, aplikazioaren funtzionamendu egokia bermatuko dugu. Gainera, enpresako alderdi telefonikoaz (bai fibra, eta telefonoa) Orange arduratuko da.



Kostuen azalpenean aurrerago barneratuko gara, baina garrantzitsua da enpresak aurrera egiteko, mailegu bat eskatzea Laboral Kutxari. Banku honen aukeraketa

egiterakoan, honek dituen interes baxuetan eta eskaintza interesgarrietan oinarritu gara.

Beraz, gure ustez aurrekoak izango lirateke proiektuaren jasagarritasunaren onerako kontuan hartu beharreko elkarteak.